

Kaixo, Ane naiz eta 13 urte ditut. 1999ko urtarrilaren hamaikan jaio nintzen Araman. Ordiziako Jakintza Ikastolan ikasten dut eta DBHko 1.mailan nago.

Nire zaletasunak korrika egitea, saski baloian jolastea eta musika entzutea dira. Baina gehien atsegin dudana lagunekin egotea da.

Lehiaketan parte hartzen dudan lehen aldia da, eta sinistu ezinik geratu naiz 2.saria lortu dudala esan didatenean. Hurrengo urtean berriro animatuko naizela pentsatzen dut.

GAIA: Semeak gazteen festara joateko baimena eskatzen dio amari baina ama ezezkoan dago.

DOINUA: Astoa ikusi nuen

1
Ama joan nahi nuke
gazteen festara
nire lagun guztiak
doaz ta bertara
bertan egingo dugu
nahikoa algara
Axolarik ez dio
berandutzen bada

2
Zure intentzioak
aurretik igarriz
Ez dizut utzi behar
ta ez esan berriz
Etxetik sano irten
buelta begi gorriz
normala da festatan
pasatzea neurritz

3
Zin dagizut festetan
ondo nabilela
esandako orduan
bueltauako naizela
Esan dizut lenago
gazteen festa dela
gaizki portatzen banaiz
zigortu bestela

4
Berdin zait zer esaten
dezun nire seme
zeinen lotsagabea
gaurkoan ai-ene
Gaur zaindu behar duzu
gure Madelene
Zure plana hori da
horrekin konforme

5
Azken aldia dela
esan dizut aurrez
ta hortikan aurrea
entzun ba faborez
eta nik ingo ditut
nire lanak legez
ama utzi zaidazu
joaten mesedez

6
Aukerarik ez dela
esan dizut baina
berriz ere bazoaz
seme alajaina
laster jasoko duzu
festaren ordaina
ta aitak jakingo du
egindako mina